

PAULAREN SEIGARREN ATZAMARRA

Katixa Agirre; Patxi Gallego



1- Zertan da Paula "ez normala"?

☐ Ezkerreko eskuan sei erhi ditu.

☒ Eskuineko eskuan sei erhi ditu.

2- Paulak dio bere ama ausarta dela. Zegatik ote?

☐ Entziklopedian agertzen delako.

☒ Ez baitu utzi medikua seigarren erhiaren moztera.

3- Lehen egunean, eskolako haurrak trufatzen dira, baina egiazki zer pentsatzen dute?

☒ Haiek ere sei erhi nahi lituzketela; jeloskor dira.

☐ Erhi ttipi hori itsusia dela eta har baten eite duela.

4- Zer erraten du maisuak (irakasleak)?

☐ Batzuek grano bat (sor-seinale bat) badutela sudur puntan.

☒ Batzuek ez dutela ilerik buru gainean eta ez dela trufatu behar.

☒ Tontolapikoak (ergelak) baizik ez direla desberdintasunez trufatzen.

5- Noren pentsamenduak ezin ditu irakurri Paulak?

☐ Bere maisuarenak.

☒ Miki bere neba (anaia) gehienarenak.

6- Zergatik ezin ditu irakurri?

☐ Bera baino aise zaharrago delako.

☒ Honek idazle izan nahi baitu, eta besteen buruan sartzen dakielako.

7- Noren istorioa irakurri du Mikik Interneten?

☒ Ana Bolenaren istorioa.

☒ Rafael italiar pintorearen istorioa.



8- Nork manatu zion potreta bat Rafaeli?

☒ Aita Sainduak.

☐ Henrike Ingalaterrako erregeak.

9- Zer gertatzen da marrazketa klasean?

☐ Klaseko guziak Oierren potretaz trufatzen dira.

☒ Paulak Oierren potreta sei erhirekin marraz dezan nahi du Oierrek.

10- Amak Paula lau hostoko hirusta bati konparatzen du. Zergatik?

☐ Bere amak ez baitu sekula lau hostoko hirustarik atzeman.

☒ Paula amaren lau hostoko hirusta bezala baita, berezia eta balio handikoa.